

Erakunde habitagarriak eraiki, ekologiatic

Naturatik ikasi,
erakundeak eraldatzeko



Erakunde habitagarriak eraiki, ekologiatik

Naturatik ikasi,
erakundeak eraldatzeko

Dokumentu hau Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren REAS Euskadi sareak eta ALBOANek bultzatu dute, eta proiektu honen barruan dago: "Ikuspegi lokal-global batetik bizitzaren jasangarritasunaren zerbitzura egongo den ekonomia baterako praktikak eta proposamen ekosozialak", Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Bizkaiko Foru Aldundiak batera finantzatua. Proiektu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-, ekonomia- eta hezkuntza-eragileen gaitasunak sendotu nahi dira, beren erakundeak eta haien praktika sozial eta ekonomikoak eralda ditzaten, eta, horrela, justizia-irizpideen arabera trantsizio ekosozial baten alde lagundu dezaten.



ERAKUNDE HABITAGARRIAK ERAIKI, EKOLOGIATIK.

Naturatik ikasi, erakundeak eraldatzeko

2023ko abendua

Egilea: Carlos Askunze Elizaga

Ekarpenak: José Luis Fernández Casadevante (Kois) eta

Amaia Unzueta

Ilustrazioak: Lili Aldai, www.lilialdai.com

Diseinua eta maketazioa: Ruth Alday

Itzulpena: Elhuyar

Inprimatzea: J.MARTÍNEZ Imprimategia

REAS Euskadi

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren sarea

Ekonopolo. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Poloa

Harrobi kalea 4, 48003 Bilbo

Tel.: 944 160 566

reaseuskadi@reaseuskadi.eus

www.reaseuskadi.eus

Sare sozialak: @REASEuskadi

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2.a, 48008 Bilbo

Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938

Barañaingo etorbidea 2, 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302 • Faxe: 948 264 308

Andia 3, 20004 Donostia

Tel.: 943 275 173 • Faxe: 943 320 267

Monseñor Estenaga 1, 01002 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 202 676 • Faxe: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org

Sare sozialak: Facebook: @alboan • Twitter: ALBOANongd •

Youtube: alboan.tv



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 (CC BY-NC-SA 4.0)

Dokumentu hau Creative Commons en lizentzia baten pean dago. Baimentzen da obra hau libreki kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea, betiere egiletza aitortzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Aldatzen edo eraldatzen bada, edo obra eratorri bat sortzen bada, lizentzia berarekin baino ezingo da banatu. Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0>



Aurkibidea

Aurkezpena.

1. Erakunde habitagarrien ikuspegia.	6
2. Erakundeak birpentsatu, krisi ekosozialeko garaietan.	10
3. Bizitzaren jasangarritasunerako erakundeak eraiki.	14
4. Erakunde habitagarrien (ber)eraikuntza ekologikorako gida.	17
4.1. Naturaren funtzionamenduaren printzipioetatik abiatuta berrantolatu beharra.	18
Naturaren 10 printzipio oinarritzko:	20
1. Ezinbestekoa den energia ongi erabili.	22
2. Ziklo itxietan jardun.	24
3. Landareak bezala hazi: sustraiturik eta behetik gora.	26
4. Maximizatu beharrea, optimizatu.	27
5. Aniztasuna onartu eta metatu.	28
6. Harreman sinbiotikoak eratu eta lankidetzaz saritu.	29
7. Bizitzarako lagunkoiak diren materialak erabili.	30
8. Mugikortasuna murriztu.	31
9. Ingurunea hobetu.	32
10. Etorkizuneko belaunaldiak zaindu.	33
4.2. Eraikuntza ekologikoaren eta biomimetikoaren inplikazioak eta erronkak erakundeentzat.	34

KOADROEN AURKIBIDEA

•Genero-berdintasunaren alde antolaketa aldatzeko prozesuak.	8
•Erakunde habitagarriak ekonomia solidarioan, ikuspegi feministatik.	8
•Bizi, eraiki, babestu, zaindu eta landu.	9
•Aztarna ekologikoa eta planetaren gaitasuna gainditzea.	10
•Antropozenoa eta kapitalozenoa.	11
•Jasangarritasun ekologikoa ekonomia solidarioan (REAS sareen sarea).	12
•Guztion etxea zaintzea alternatiba ekonomikoetan (Comparte sarea).	13
•Errokillak: XXI. mendeko iparrorratza (Kate Raworth).	15
•Bizitza interdependenteak eta ekomendekoak sostengatu eta zaindu.	16
•Biomimesia diseinu sozialerako ikuspegi gisa.	18
•Nahikotasuna erakunde habitagarrietan.	39

Aurkezpena

Gaur egun gure planetak aurre egin beharreko larrialdi sozial eta ekologikoek agerian uzten dute gizarteak birpentsatzeko eta berrantolatzekeo dugun beharra, bai eta erakundeek, eragile sozial eta ekonomikoek eta herritarrek egin behar dituzten aldaketak identifikatzeko ere. Justizia ekosozialaren ikuspegitik gizarte hobeak eraikitzekeo, beharrezkoak dira, besteak beste, enpresak izatekeo eta egitekeo modu berriak eta erakundeen lan- eta gizarte-inguruneak ulertzekeo eta garatzeko modu berriak.

Gida honen bidez, zenbait argibide eman nahi dira erakunde sozial eta ekonomikoek eraldaketa horiek ekiten laguntzekeo, habitagarriagoak izan daitezkeen eta ahalmen handiagoa izan dezaten inguruan dituzten arrisku eta erronkei kolektiboki erantzutekeo. Dagoeneko ari zen hori egiten ekonomia sozial eta solidarioaren mugimendua; hain zuzen, ikuspegi feminista txertatuz bertako kideen bizitzetarako eredu ekitatiboago eta jasangarriago batzuen eraikuntzan. Argitalpen honen bidez, berriz, ikuspegi ekologikotik abiatuta zabaldu nahi da begirada.

Ekologiaranzko begirada bat da, beraz, baina ez bakarrik inaktuak murriztekeo eta ingurumenaren leheneratzea sustatzeko xedea duena, baizik eta baita honelako erakundeak eraikitzekeo ere: konfigurazioan eta praktikan ahalik eta antzik handiena dutenak naturaren zikloekiko eta printzipioekiko, bai eta naturak biziaren jarraitutasuna bermatzen duen modurekiko ere. Azken batean, natura izatekeo eta bertan bizitzeko modu berri bat.

Honetan datza begirada ekologikoaren eta feministaren arteko elkargunea: identitatearen eta jardunaren erdigunean bizitza jarriko duten gune sozial eta ekonomikoak garatzea, eta, ildo beretik, erakundeak eraikitzekeo modu ekitatiboagoak eta jasangarriagoak ehuntzea. Horregatik, argitalpen honen hasieran zenbait zehaztapen aurkeztu dira erakunde habitagarrien ikuspegiari buruz (1. kapitulu), krisi ekosozialaren garaiotan erakundeak birpentsatzeko beharrari buruz (2. kapitulu) eta haiek bizitzaren jasangarritasunaren zerbitzura jartzeko helburuari buruz (3. kapitulu).

4. kapitulu, proposamen bat aurkeztu da erakundeak naturaren printzipioetatik abiatuta birpentsatzeko. Horretarako, deskribatu ondoren, ikuspegi feministarekin duen lotura aztertzen da, eta taldean lantzekeo jarduera eta baliabide batzuk proposatzen dira. Horrez gain, horrelako prozesu batean sartzeak dituen inplikazio eta erronka batzuk aurkeztu dira.

Lan hau Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren REAS Euskadi sareak eta ALBOANek bultzatu dute, eta proiektu honen barruan dago: "Ikuspegi lokal-global batetik bizitzaren jasangarritasunaren zerbitzura egongo den ekonomia baterako praktikak eta proposamen ekosozialak", Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Bizkaiko Foru Aldundiak batera finantzatuak. Proiektu horren bidez, sendotu egin nahi dira Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-, ekonomia- eta hezkuntza-eragileen gaitasunak, beren erakundeak eta haien praktika sozial eta ekonomikoak eralda ditzaten, eta, horrela, justizia-irizpideen arabera trantsizio ekosozial baten alde lagundu dezaten.

Argitalpen hau egitekeo, kontuan hartu dira "Nola ekologizatu gure erakundeak?" gaiari buruzko bitaileren ekarpenak. Lehenengoa (Bilbo, 2022ko ekaina) Garúa kooperatibako kide Jose Luis Fernandez Casadevante "Kois"ek dinamizatu zuen. Testu hau ere hark berrikusi du, eta oso ekarpen baliotsuak egin ditu azken emaitzarako. Bigarren tailerra (online, 2022ko azaroa) Pueblako (Mexiko) Unibertsitate Iberoamerikarreko Ingurumen Ikerketen Institutuko kide Guillermina Lópezek dinamizatu zuen.

Espero dugu baliagarria izango dela eta aukera emango duela erakunde sozial eta ekonomikoek aldaketa-prozesuak egin ditzaten erakunde ekitatiboagoak eta habitagarriagoak, sozialki eta ingurumenaren aldetik jasangarriak eta pertsona guztientzat eta planeta osoarentzat justizia ekosozialarekin konprometitutakoak eraikitzekeo norabidean.

1. Erakunde habitagarrien ikuspegia

Duela hamarkada asko, borroka sindikalen eta enpleguari eta lan-harremanei lotutako politika publikoetan egindako aurrerapenaren ondorioz, gero eta arreta handiagoa eskaini zitzaion espazioaren eta lanpostuaren baldintza materialei. Lan-jarduera egiten den leku fisikoa zein testuingurua hobetzeko egin diren aurrerapen horien emaitza gisa, segurtasunaren eta lan-osasunaren arloetan garatu diren arauak ditugu.

Esparru horretan, gero eta kezka handiagoa dago laneko gaixotasunak eta arriskuak prebenitzeko eta detektatzeko; batez ere, langileen —eta, bereziki, kalteberenen— osasunerako eta segurtasunerako arrisku handiagoak dakartzaten jarduerekin lotutakoak. Gaur egun, ikuspegi hori zabaldu egin da, eta lan-eremuan gero eta presentzia handiagoa duten arrisku psikosozialen multzo bat identifikatu da, honako hauekin lotuak: lanaren antolaketa eta plangintza, desberdinkeriek eta diskriminazioek irautea, enpleguaren prekaritatea eta garapen pertsonal eta profesionalerako itxaropenik eza.

Era berean, aipatu behar da arrisku berriak agertu direla, gorabidean dauden zenbait egoerarekin lotuak, hala nola ekonomiaren eta lan-inguruneen gero eta digitalizazio handiagoarekin. Hain zuzen, errealitate berria eta konplexua da, lanaren antolaketa nabarmen aldatzen duena eta langileen lan-harremanak eta eskubideak baldintzatzen dituena. Alderdi horretatik, adibide gisa aipatu dezakegu telelana gero eta jarduerasektore gehiagotan ari dela sartzen; baita ere, kezka eragiten duela lanalditik kanpoko deskonexio digitalak. Bi adibide horiek lotura zuzena dute osasunerako

arrisku-faktore batzuk areagotzearekin, batez ere ergonomikoak eta psikosozialak.

Argi dago gure gizartean eta planetan erritmo bizian gertatzen ari diren ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-eraldaketek eragina dutela enpresak antolatzeke modu berrietan, lan-harremanetan eta langileen arriskueta. Honako elementu hauek lan-kondizio berriak baldintzatzen ari dira: garapen teknologikoa eta digitalizazioa, aldaketa demografikoak eta klima-aldaketa. Nolanahi dela ere, oraindik ez dago tresna eraginkor nahikorik haiei aurre egiteko.

Dena den, faktore berriak dira, pixkanaka beren lekua hartzen ari direnak ekintza sindikalaren eremuan, bai eta politika publiko berrien garapenean ere. Ikuspegi horretatik, ikus dezakegu nola ari diren txertatzen kezka horiek Europar Batasunean, laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako estrategia nazionalak garatzerakoan¹.

Joera horiek guztiak formalki kontuan hartzen diren arren, ez dira beti kontuan hartzen enpresaren jardunean. Zalantzarik gabe, haien helburua da beharrezkoak diren baldintzak betetzea enplegua jarduerasegurua izan dadin—langileen osasun fisikorako edo psikosozialerako arriskurik gabea—, eta, beraz, lan-ingurune eta -harreman egokiak eta osasungarriak sor ditzan. Eta hori da lehenengo urratsa erakunde bat (enpresa- zein gizarte-arlokoa) habitagarria izan dadin, hau da, habitatua izateko baldintzak bete ditzan.

Baina antolamendu habitagarriaren kontzeptuak baditu zenbait ezaugarri berritzaile eta berri, laneko

^{1/} Dokumentu hauek kontsultatu daitezke: *Laneko segurtasun eta osasunerako euskal estrategia 2021-2026* (<https://bit.ly/EuskalEstrategia>) eta *Estrategia Española de Seguridad y Salud en el Trabajo 2023-2027* (<https://bit.ly/EstrategiaEspañola>).

Helburua da, ekonomia alternatibo eta eraldatzaileetan oinarriturik, lana antolatze eta planifikatzeko era berriak proposatzea

segurtasun- eta osasun-politikekin lotutakoez askoz harago doazenak. Egia esan, ikuspegi hori lotua dago markoen egungo eraldaketekin eta antolamendu sozial eta ekonomiko orori eragiten dioten gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-erronka berrieekin. Baina haren helburua ez da soilik erakundea errealitate sortu berri horietara egokitzea, baizik eta, ekonomia alternatibo eta eraldatzaileen markoaren barruan, lana antolatze eta planifikatzeko modu berriak proposatzea, bizitzaren jasangarritasuna erakundearen identitatearen eta jardunaren erdigunean jarri.

Ikuspegi hori, lehenik eta behin, antolaketa-aldaketako prozesuei ikuspegi feministatik ekiteko beharretik sortu da. Feminismoaren helburua da erakundeak (sozialak, ekonomikoak, publikoak zein pribatuak) eraldatzea. Izan ere, historian zehar genero-harremanek eta egitura patriarkalek zeharkatuta egon dira, eta egitura horiek desparekotasunak sortzen dituzte gizonen eta emakumeen artean: soldata-arrakalak; diskriminazioak zereginak esleitzean eta zenbait kargutarako sarbidean; lan-bizitzaren, familia-bizitzaren eta bizitza pertsonalaren arteko gatazkak; abusuak eta indarkeria sexista; etab.

Ikuspegi horri ekiteko, **GIZARTEAREN** eta **INGURUMENAREN ERRONKAK** detektatu beharko dira, eta haiei aurre egin



Genero-berdintasunaren alde antolaketa aldatzeko prozesuak

Honela definitzen dira genero-berdintasunaren alde antolaketa aldatzeko prozesuak: erakundeen barruan egiteko eta pentsatzeko moduak eraldatzeari buruz hausnartzea eta ekimenak abiaraztea, era horretan erakundeen funtzionamendu-maila guztietan (estrategiak, egiturak, lan-sistemak, politikak, erakunde-kultura, etab.) gertatzen diren genero-desparekotasunak ezabatze².

Ikuspegi horretatik erakunde bati buruzko eztabaida egitean, helburua da identifikatzea zer joerak ahalbidetzen duten desberdinkeriarik eustea eta erreproduzitzea haren egiturek, prozesuek eta harremanek, bai eta kulturak eta sinesmenek ere. Begirada oso bat da, helburutzat duena ebaluatzea eta eraldatzea bai ikusgai dagoena (produktuak, kontaktak,

irudiak...) bai erakundea osatzen duten dinamikekin eta balioekin zerikusia duena.

Aldaketa-prozesu horiek tresnaindartsuak dira, ekonomia sozial eta solidarioaren aldeko erakundeentzat, enpresa izateko eta egiteko modu berriak eraikitzeke; hain zuzen, modu berri horiek oso egokiak dira ekonomiaren

Erakunde habitagarriak ekonomia solidarioan, ikuspegi feministatik

Nola eraiki ekonomiak bizitzaren zerbitzura, eta ez kapitalaren eta etekinaren zerbitzura? Edo nola kokatu bizitza gure jardueraren eta erakundeen erdigunean? Horretarako, nahitaez, erakunde, egitura eta funtzionatzeko modu habitagarriak eraiki behar dira, emakume eta gizonentzat habitagarriak. Ikuspegi ez-patriarkaletatik eraikitako erakundeak izan behar dute, beren egiteko moduak kritikoki berrikusten dituztenak, horri esker ongizate eta ekitate handiagoa lortzeko haien kide diren pertsonen artean.

Erakunde horiek, habitagarriak izateko, balio hauen arabera definitu behar dira: elkarlana, erantzunkidetasuna, arreta, norbanakoaren eta taldearen arteko lotura, eta lana eta zaintza pentsatzeko modu alternatiboak. Erakunde horiek irekiak izan behar dute, malguak, askotarikoak, demokratikoak, lidergo kolektiboetan oinarrituak, parte-hartzea bultzatzen dutenak eta beren identitateaz eta xedeaz kritikoki pentsatzen dutenak, eta prozesuetan, harremanetan, balioetan eta afektibitatean arreta berezia jartzen dutenak.

Gehiago jakiteko



- REAS Euskadi (2019): *Bizigarri. REAS Euskadiren genero-ekitatearen aldeko plana 2018-2022*. REAS Euskadi, Bilbao
<https://bit.ly/BizigarriEus>
- Bascuas, Maisa, Roco Sanfilippo, Josefina, Piris, Silvia, Cabrera, Melissa, Ortega, Naroa eta Zaloa Pérez (2019): *Sortu, zaindu, bizi: praktika feministak ekonomia solidarioko erakundeetan*. Ekonomia solidarioaren paperak, 6. zk. REAS Euskadi, Bilbo
<https://bit.ly/PraktikaFeministakESP6>

- Piris, Silvia, Sáenz de Ugarte, Eva, Balboa, Txelu eta Zaloa Pérez (2020): *Bizigarria izango da edo ez da izango. Gure erakunde (txiki)-etarako apunte feministak*. REAS Euskadi, Bilbao
<https://bit.ly/BizigarrialzangoDa>
- Pérez, Zaloa et al. (2020): *Genero-berdintasuna. Ekonomia solidarioko erakundeentzako pistak*. REAS Euskadi eta ALBOAN, Bilbo
<https://bit.ly/BerdintasunaPistak>

2/ Eusko Jaurlaritzak: 40/2018 Dekretua, martxoaren 27koa, zeinaren bidez arautzen baitira genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetzak-erakundeek eman beharreko laguntzak (<https://bit.ly/DekretuAldaketa>).

Ekonomia solidarioaren eta ekofeminismoaren arteko topaketak erakundeen erdigunean kokatzen du bizitzaren jasangarritasuna

eta gizartearen esparruan erakunde horiek dituzten proposamen alternatiboak garatzeko.

Eredu tradizionalen analisi feministak, desparekotasunak auzitan jartzeaz gain, erakusten du eraldatu egin behar direla erakundeak definitzeko eta egituratzeko moduak, eta beste era batean planifikatu beharra dagoela honako hauekin lotuta dauden prozesu giltzarriak: erabakiak hartzea, estrategien definizioa, aurrekontu-esleipena, parte-hartzea, komunikazioa, zereginen banaketa, espazioaren zaintza, pertsonen arteko harremanak, soldata-politika, eta abar.

Azken finean, bizitzaren jasangarritasuna erakundeen identitatearen eta jardunaren erdigunean jartzen du ekonomia solidarioaren eta ekofeminismoaren arteko topaketak, eta baztertu egiten ditu ekonomia eta enpresak antolatzekeo eredu kapitalistaren joera produktibista eta arrazionalistak.

Horrenbestez, helburua da antolamenduaren eremura eramatea ekonomia ekitatiboago, inklusiboago, feministago, ekologikoago eta solidarioago bat eraikitzekeo proposamen alternatiboak. Eta, horretarako, garai bateko eredu patriarkal, bertikal eta produktibistak gainditzeko dituzten erakundeak behar dira.

Illo horretan, erakunde habitagarriak eraikitzekeo, beharrezkoa da, alde batetik, laneko segurtasun- eta osasun-baldintzen alderdi guztiak kontuan hartzea, eta, bestetik, genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-alaketako prozesuei ekitea, era horretan egitura, prozesu eta praktika guztietan kokatzeko bizitzaren zaintza eta jasangarritasuna. Eta, azkenik, oso garrantzitsua da ibilbide horretan ikuspegi ekologikoa onartzea eta sartzea, guztiz beharrezkoa baita bizitzaren jasangarritasuna ahalbidetuko duten baldintza sozialak eta ingurumenekoak ziurtatzeko.

Habitatu, eraiki, babestu, zaindu eta landu

Habitatu aditzak espazio batean bizitzeari edo hura okupatzeari egiten dio erreferentzia, eta, beraz, espazio hori habitagarritzat hartu dadin, "bizigarria" izatekeo eta behar bezala okupatua izatekeo baldintzak bete behar ditu.

Baina Martin Heidegger filosofoak gogorarazten digu habitatu hitzak badituela beste adiera batzuk ere. Nabarmentzen du antzinako alemanez habitatzea buan edo bauen hitzarekin adierazten dela, eta, aldi berean, hitz horrek beste esanahi batzuk ere badituela, hala nola eraikitzea, babestea, zaintzea eta lantzea.

Hitz bakar batek kontzeptu desberdin horiek denak barne hartzean, uler dezakegu erakunde bat habitagarria izatea prozesu bat dela, eskatzen duena espazio bat (fisikoa, erlazionala, afektiboa, lan-arlokoa, eta abar) eraikitzea baldintza batzuk behar dituen habitagarria izan dadin eta era onuragarrian okupatua izan dadin, eta, gainera, etengabeko zaintza (babestea eta lantzea) behar duena.

Beraz, adostu genezake erakunde habitagarriak antolamenduaren eraikuntza- eta eraldaketa-prozesu etengabe eta aldakorren emaitza direla, zeinek pertsonen ekitatea eta ongizatea erdigunean jartzen baitute, eta zeinek, zainketen bidez, bizitzaren erreprodukzioa nahiz jasangarritasuna ahalbidetzen baitituzte gizarte- eta ingurumen-eremuan.

2. Erakundeak birpentsatu, krisi ekosozialeko garaietan

Gero eta ahots eta azterlan gehiagok aitortzen dute krisi sistemikoko garai batean gaudela —egiturazkoa, globala eta sakonekoa—, zeinean zenbait krisi-mota kateatzen eta gainezartzen baitira: ekonomikoa, ekologikoa, zaintzarena, eta gizartearen, politikaren eta balioen arloko erreprodukzioarena. Krisi horiek sakon lotuta daude esparru ugartan gertatzen ari den eraldaketen bizkortzearekin, hala nola garapen teknologikoan eta

digitalizazioan, demografian, ondasun komunetan eta kliman gertatzen ari direnekin.

Krisi horren alderdi ekologikoa lotua dago baliabide fosilak, materialak, ura eta lurzorua agortzearekin, klima-aldaketarekin eta biodibertsitatea galtzearekin. Elementu horiek erakusten dute gaur egun giza ekintzak planetaren muga biofisikoak gainditu dituela, bai eta leheneratzeko gaitasuna ere.

Aztarna ekologikoa eta planetaren gaitasuna gainditzea

Global Footprint Network erakundeak biogaitasunaren (leheneratze biologikoko gaitasuna) eta aztarna ekologikoaren (baliabideen eskaera) mundu mailako bilakaera aztertzen dihardu. Hala, Lurraren Gaingintze Eguna kalkulatzen du. Egundak markatzen du zer datatan gainditzen duen gizadiaren baliabide eta zerbitzu ekologikoen eskariak, urte jakin batean, Lurrak urte horretan bertan leheneratu dezakeena. Data horrek joera argi bati jarraitzen dio: urtetik urtera, lehenago iristen da egun hori.

2023an, lurraren gaingintze-eguna abuztuaren 2a izan zen. Horrek adierazten du 200 egun pasatxotan agortu zela urteko 365 egunetarako erabilgarri zegoen kapital naturala, eta % 74an gainditu zela baliabide naturalak leheneratzeko ekosistemek duten ahalmena. Bestela esanda, gizateriak gaur egun 1,75 planeta beharko lituzke, batez beste, baliabide naturalen eskariei erantzuteko. Espainiako estatuaren kasuan, eskuragarri daudenak baino hiru aldiz baliabide natural gehiago behar lirateke. Maiatzaren 12an iritsi zen haren gaingintze-egunera.



Gehiago jakiteko

- Lurraren Gaingintze Eguna (WWF)
<https://bit.ly/DiaSobrecapacidad>
- Global Footprint Network
<https://www.footprintnetwork.org>

Krisi ekologikoak zerikusi zuzena du krisi sozialarekin; izan ere, krisi horren ondorioek arriskuan jartzen dituzte, planetako biztanle gehienentzat, gaur egun bizimodu ona izateko aukerak, eta etorkizunekoak

hipotekatzen dituzte. Herrien eta giza taldeen arteko desparekotasunak, bai krisi honen erantzukizunari dagokionez, bai haren ondorioei dagokienez, desberdinkeria, indarkeria, autoritarismo eta

bidegabekeria ekosozial gero eta handiagoetara darama gizateria.

Argi dago garapen kapitalistak izan duela ardura nagusia egoera horretan. Kapitalaren metaketa- eta kontzentrazio-prozesua bizkortu egin da, eta ondasun

naturalen, komunen eta harremanen esparruko merkantilizazioan oinarritu da. Prozesu horien euskarri diren neurrigabeko ekoizpenak eta kontsumoak planetaren ingurumen- eta gizarte-mugak gainditu dituzte, eta, historian inoiz gertatu ez zen bezala, arriskuan jarri dute bizitzaren beraren jasagarritasuna.

Antropozenoa eta kapitalozenoa

Antropozenoa gaur egungo aro geologikoa izendatzen duen terminoa da, komunitate zientifikoan gero eta hedatuagoa. Aro geologiko horren ezaugarria da giza ekintzak ardura nagusia duela planeta osatzen duten elementu naturalen osan eta egituran eraldaketa esanguratsuak eragiteko. Horretan faktore hauek eragiten dute: erregai fosilen erabilerak, baso-suntsipenak, kontrolik gabeko urbanizazioak eta baliabide naturalen ustiapenak.

Kontzeptu hori orokortzen ari den arren, azterlan kritikoek zenbait korrontek kapitalozeno terminoa proposatu dute haren orde. Lehenengoak "gizateria" abstrakzioari egozten dio natura suntsitzearen erantzukizuna, eta bigarrenak, berriz, kapitalismoaren garapenarekin lotzen du zuzenean suntsipen hori. Beraz, antropozenoa gizateriaren geologia da, eta kapitalozenoa, berriz, kapitalaren metaketaren geologia da.



Gehiago jakiteko

- Ellis, Erle C. (2022): *El Antropoceno. Una breve introducción*. Alianza editorial, Madrid
<https://bit.ly/AntropocenoEllis>
- Moore, Jason W. (2020): *El capitalismo en la trama de la vida. Ecología y acumulación de capital*. Traficantes de Sueños, Madrid
<https://bit.ly/CapitalocenoMoore>

Egoera horrek gizartea eta ekonomia egituratzen duten antolakunde eta erakundeei eragiten die eta haiek baldintzatzen ari da, neurri handiagoan edo txikiagoan. Alde batera utzita erakunde publikoen eta eragile sozial eta ekonomikoen mugak eta esku-hartzerikeza, agerikoa da krisi ekosozialaren ondorioak eragina izaten ari direla jarduera ekonomikoaren funtzionamenduan, enpresen konfigurazioan eta

lanaren antolaketan eta plangintzan, bai eta lan-baldintzen eta -testuinguruen aldaketan ere.

Ekonomia sozial eta solidarioko enpresak eta erakundeak, adibidez, tresnak garatzen joan dira beren jardueren ingurumen-jasagarritasuna bultzatzeko, eta, horrez gain, ekonomia ekologikoaren eta ekologia politikoaren ikuspegiak txertatu dituzte beren ideietan eta proposamenetan.

Jasangarritasun ekologikoa ekonomia solidarioan (REAS sareen sarea)

Ekonomia solidarioak prozesu sozial eta ekonomiko ororen erdigunean jartzen ditu izaki bizidunak eta bizitzaren erreproduktzioa. Horregatik, onartzen ditu planetaren muga biofisikoak, ekosistemei eustea bultzatzen du eta haiek zaintzeko konpromisoa hartzen du.

Trantsizio ekologikoaren aldeko konpromisoak honako hauek murriztea eskatzen du: baliabide naturalak erauzteko prozesuak, energia-iturrien erabilera eta lurzoru emankorren gehiegizko ustiapena, eta biodibertsitatea eta bizitzarako beharrezkoak diren ekosistemak suntsitzen dituzten egungo ekoizpen- eta kontsumo-mailak. Ekonomia solidarioaren arloko erakundeek konpromisoa da kalte gehiagorik ez eragitea eta ingurumena konpontzea.

Printzipio hori garatzeko, honako hau proposatzen da:

- | | | |
|--|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> •Ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-eredu kontziente, kritiko eta eraldatzaileak garatzea, eta aldi berean tokiko eta hurbileko zirkuitu ekonomikoak bultzatzea. •Materialak eta baliabideak murriztea, konpontzea, berreskuratzea, berrerabiltzea eta birziklatzea. •Ingurumen- eta gizarte-justiziako irizpideekin, | <ul style="list-style-type: none"> harreman ekonomikoak bultzatzea. •Ekosistemak eta ziklo naturalak lehengoratzeko, berreskuratze-kultura bat sustatzea. •Ingurumen-praktika alternatiboak garatzea etxebizitzaren eta hirigintzaren eremuan, eta lurraldearen desmerkantilizazioa. | <ul style="list-style-type: none"> •Landa-eremuaren, hiri-eremuaren eta naturaguneen arteko oreka eta integrazioa bultzatzea. •Agroekologia praktikatzeko eta elikadura-subiranotasuna sustatzea. •Trantsizio energetikoa eta energia-subiranotasuna ahalbidetuko dituzten ekimenak bultzatzea. |
|--|---|--|



Gehiago jakiteko

- Jasangarritasun ekologikoa Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutunean <https://bit.ly/SostenibilidadES>
- REAS-Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren sareen sarea <https://reas.red> <https://economiasolidaria.org>

Ekonomia eraldatzaileen eremukoez gain, antolakunde eta erakunde ekonomiko eta sozial asko ari dira, indar handiagoz edo txikiagoz, erronka ekonomiko eta sozialak beren jardueraren lehentasuntzat hartzen. Aipa ditzagun areagotzen ari den kezka horren adibide batzuk: zigilu eta ziurtagiri ekologikoak hedatzea, enpresetan ingurumen-arauak, -prozedurak eta -protokoloak sartzea, ekonomia zirkularrean oinarritutako ekoizpen-estrategiei jarraitzea, tokiko

merkataritza eta kontsumoa sustatzea eta erosketa jasangarria egitea.

Egia da, halaber, gaur egun greenwashinga edo ekoizuritzea ugaritzen ari dela, zeinen bidez jasangarritasunari buruzko diskurtso faltsu edo engainagarriak aurkezten baitira. Hori joko komertzial hutsa baizik ez da; gizarteangero eta sektore zabalagoak daudenez ingurumen-arloan kontzientziatuta, haien eskaera gero eta handiagoetara egokitzen.

Guztion etxea zaintzea alternatiba ekonomikoetan (Comparte sarea Latinoamerikan)

Guztion etxearen zaintzaren ikuspegiak gizakia osotasunaren parte gisa kokatzen du; era horretan, antropozentrismoa gainditzen da eta gizakiaren ekomendekotasuna aitortzen da. Helburu hori gauzatzeko, ekonomia-alternatibak sortzen dira ekoizpen-sistemen, prozesuen eta erabilitako bitartekoen ingurumen-jasangarritasunaren arloan, eta tokiko kontsumo-kultura arduratsu bat sustatzen da.

Egungo gizarte- eta ingurumen-krisiaren aurrean, premiazkoa da edozein ekintzaren mugak kontuan hartzea eta hark dituen inpaktuen gaineko begirada kritikoa indartzea, eta, ondorioz, aztarna ekologikoa murrizten lagunduko duten praktikak ezartzea eta klima-aldaketa prebenitzeko, hartara egokitzeko eta hura arintzeko tokiko neurriak sortzea.

Ondasun naturalak espoliatzen, merkantilizatzen edo kutsatzen diren testuinguruetan, guztion etxea zaintzearen aldeko apustuak garrantzi politikoa hartzen du, horri esker lurraldea eta bertan bizi diren izaki bizidunak babesteko.

Ikuspegi horrek, besteak beste, honako hauek eskatzen ditu:

- Agroekologiarako edo nekazaritza organikorako trantsizioa.
- Ingurumen-inpaktu txikiagoa duten sargaiak eskuratzea.
- Zirkuitu ekonomiko labur eta solidarioak sustatzea.
- Ekoizpenaren eta kontsumoaren kultura arduratsua zabaltzea.
- Erakundeen baliabideak arduraz kudeatzeko prozedurak definitzea.
- Ziklo ekonomiko osoko prozesuetan karbono-aztarna aztertzea.



Gehiago jakiteko

- Rasgos de las Alternativas Económicas que promueve la Red Comparte
<https://bit.ly/RasgosComparte>
- Red Comparte, comunidad de aprendizaje y acción para la gestión de alternativas económicas en América Latina
<https://bit.ly/RedComparteAL>

Ohikoak dira horrelako jokaerak enpresa handien jasangarritasun-memoriatarako zein energiaren, modaren, bankaren edo garraioaren sektoreetako ohiko publizitate-kontakizunetarako⁴.

Gizarteek eta planetak dituzten erronka ekosozialen aurrean, ezinbestekoa da ikuspegi ekologikoa erakundeen identitatean eta praktikan txertatzea. Helburua da erakundeak ekologizatzea, haien

gizarte- eta ingurumen-inpaktuak minimizatzeko eta ezabatzeko, eta bizitzaren jasangarritasunarekin konprometitutako ingurune ekonomiko eta sozial habitagarriak sustatzeko. Dagoeneko ez da nahikoa mugimendu ekologisten ekintzaren alde egotea; aitzitik, erakunde oro ekologista bihurtu behar da, edozein direla ere haren helburu soziala eta jarduera.

4/ Enciso, Jaume (coord.) (2023): *Alerta: Greenwashing. El ecoblanqueo en España*. Pollen edicions, Sant Cugat del Vallès.

3. Bizitzaren jasangarritasunerako erakundeak eraiki

Azken urteotan orokortzen joan da “bizitzaren jasangarritasuna”ren kontzeptu ekofeminista, bai ekonomia kritikoen ikerketetan, bai praktika ekonomiko alternatiboetan. Horren bidez, hazkunde ekonomiko kapitalistaren ereduak dakarren mehatxua nabarmentzen da; izan ere, hazkunde horrek gaingintza egin ditu bizitzaren muga sozialak eta ingurumenekoak. Errealitate horren aurrean, helburua da baldintza objektibo eta subjektiboak identifikatzea eta sustatzea, horrela planeta osoan izaki bizidunentzako bizitza betea garatu ahal izateko, eta baldintza egokietan.

Horretarako, errotik eraldatu behar da ekonomia kapitalista, bizitza erdigunean jarritz eta bizitzari eustea ziurtatuko duten prozesuak lehenetsiz, betiere interdependenteak eta ekodependenteak garela aitortuz.


Hori lortzeko, beharrezkoa da “ekonomia jasangarri bat eraikitzea, gizaki guztien beharrak asetzeko lan egingo duena, haien mundu komun sozial eta naturalaren erreproduktzio-gaitasunari eusten lagunduko diena (...), eta ekoizpena eta merkatua komunitateen eta

pertsonen zerbitzuan [jarriko duena]”⁵. Ikuspegi horren abiapuntua kapitalaren eta lanaren arteko gatazkaren kontzepzio klasikoaren kritika da; izan ere, gatazka hori, kapitalismoak izan duen garapenaren egungo baldintzetan, kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka gisa birdefinitzen da.

Ikuspegi horretatik, azalpen baliagarria ematen du *donut-aren teoria*⁶k. Bi alderdi ditu. Batetik, mundu osoan bete behar diren funtsezko premien oinarri bat definitzearen premia, zeinaren azpitik ezin baita bizitza duin bat garatu (diru-sarrerak, hezkuntza, osasuna, elikadura, energia, genero-berdintasuna). Bestetik, ingurumen-mugek markatutako sabai bat badagoela onartzearen beharra, zeina ezin baitugu gaingintza sistema sozioekonomiko jasangarriak eraiki nahi baditugu (klima, lurzorua erabilerak, ura, kutsadura...). Gizateriarentzako tarte seguru eta bidezkoa bi atalase horien artean kokatuko litzateke; izan ere, ekonomia berri baten aldeko edozein apustuk lurzoru sozialaren eta ingurumen-sabaiaren artean *habitatu* behar du.

5/ Carrasco Bengoa, Cristina (2014): “Ekonomia, lanak eta bizitzaren iraunkortasuna”, in zenbait autore: *Bizitzaren iraunkortasuna: Ekonomia Solidario, Feminista eta Ekologikoan oinarrituz egindako ekarpenak*, REAS Euskadi. Bilbo: <https://bit.ly/Bizitzalraunkor>

6/ Raworth, Kate (2018): *Economía rosquilla. Siete maneras de pensar la economía del siglo XXI*, Paidós, Bartzelona.



Errozkilla: XXI. mendeko iparroratz bat (Kate Raworth)

Interdependenteak eta ekomendekoak diren bizitzak sostengatzea eta zaintzea

- “Bizitzaren jasagarritasuna esango diogu bizitzea merezi duten bizitzak izateko beharrezkoak diren baldintzei eusteko ahalmenari” (Amaia Pérez Orozco)⁷.
- “Gorputza mugatua eta zaurgarria dela eta behar batzuk dituela onartzea ezinbestekoa da ulertzeko gure espeziea funtsean interdependentea dela, eta ulertzeko gizatasuna existitzeko nahitaezko baldintzak direla elkarrekikotasuna, lankidetzak, loturak eta harremanak” (Yayo Herrero)⁸.
- “Zaurgarritasuna eta zaintzen beharra dira herritartasunerako oinarri antropologiko, etiko eta sozialak. Unibertsaltasuna parerik gabeko gorputzetan gauzatzen denez, zaurgarritasunak definitzen ditu horren mugak. Zaintza politikoek herritarren ardura-sare bat egituratzen dute, zeina bizitzea merezi duten existentziak sostengatzera eta garatzera bideratua baitago” (José Laguna)⁹.
- “Gizakiok naturatik lortzen dugu bizirik egoteko behar duguna: janaria, ura, aterpea, energia, mineralak... Horregatik esaten dugu ekodependenteak garela. Naturarekiko mendekotasun materialak zuzenean eramaten gaitu gure Lur planetaren muga fisikoez jabetzera. Mugak daude lurrazaletik mineralak ateratzeari dagokionez, ziklo naturalen leheneratze-tasei dagokienez eta planetaren hustubideei dagokienez” (Yayo Hererro)¹⁰.

Ikuspegi horretatik abiatuta, planteatzen da bizitza erdigunean jarriko duten erakundeak eraikitzea, zeinek, horri esker, gure planetak eskatzen dituen eraldaketa ekonomiko eta sozialetan lagunduko baitute. Lan horri ezin zaio aurre egin desberdinkeria iraunkorren gainean eraikitako antolaketa-eredu tradizionaletatik abiatuta, ez eta haien praktika garatzen den ingurunea kontuan hartzen ez duten eruedetatik abiatuta ere.

Feminismoak eta ekologismoak ematen dituzten ikuspegi alternatibo eta tresna praktikoez lagundu dezakete bizitzaren jasagarritasunaren zerbitzura dauden erakunde-eruedetara igarotzeko prozesuan. Ez bakarrik haien xedea paradigma horretatik bideratzen delako, baizik eta haien identitateak eta erakunde-kulturak aukera ematen dielako bizitza erdigunean jartzeko.

Eredu alternatibo horiek garatzeak erronka batzuei aurre egitea eskatzen du: produktibismoa zalantzan jartzea eta ugalketa- eta zaintza-lanak erakundearen bizitzan txertatzea; lankidetzan eta elkarrekiko laguntzan (barnekoa zein kanpoko) oinarritutako harreman-moduak (ekonomikoak ere bai) sustatzea; logika patriarkalei eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriarik auaiera ematea; energiaren, materialen eta baliabideen kontsumoa murriztuko duten eta ekonomia zirkularra sustatuko duten neurri

eraginkorrazartzea; lanaren inpaktu mugatuko duten eta ingurumena leheneratzen lagunduko duten lan-ereduak garatzea; horizontaltasunean, autokudeaketan eta erantzukizun kolektiboan oinarritutako partaidetza-moduak garatzea, etab.

Bizi dugun krisi ekosozialeko garaia, gainera, ezinbestekoak ditu erronkak muga geografikoez harago aldeztuko eta beren gain hartuko dituzten erakundeak. Klima-aldaketaren aurkako eta ingurumenaren aldeko borroak honelako erakundeak eskatzen ditu: beren eragiketen eta erabakien ingurumen-inpaktua —ez bakarrik lan egiten duten lurraldean, baita esparru globalean ere— aztertu eta aintzat hartuko dutenak.

Antolaketa aldatzeko prozesu-mota horiei ekiteak inplikazio konplexuak ditu, eta erabakitetasuna, pedagogia, sormena eta arreta handia eskatzen dute. Bide horretan erresistentzia, gatazka eta kontraesan ugari aurkituko dira, eta, sarritan, ez da erraza izango bidea orientatuko duen iparrorratza aurkitzea. Nolanahi ere, ahaleginek merezi izango dute. Izan ere, gero eta habitagarriagoak diren erakunde-ereduak landuko dira horrela, eta hori lagungarria izango da jasagarritasun-irizpideak oinarri hartuta ingurunea eta haiek garatzen diren planeta eraldatzeko.


7/ Pérez Orozco, Amaia (2015): “La sostenibilidad de la vida en el centro... ¿y eso que significa?”, in Mora Cabello De Alba, Laura eta Juan Escribano Gutiérrez (coords.): *La ecología del trabajo. El trabajo que sostiene la vida*, Bomarzo, Albacete.

8/ Herrero, Yayo (2019): “Cuidar de la vida, cuidar las relaciones con el planeta”, in Pérez Alonso, Edith, Girón, Antonio eta Juan Luis Ruiz-Gimenez (coords): *Los cuidados. Saberes y experiencias para cuidar los barrios que habitamos*, Ecologistas en Acción, Madrid.

9/ Laguna, José (2021): *Ciudadanía. Del contrato social al pacto de cuidados*. PPC, Boadilla del Monte.

10/ Herrero, Yayo (2019), op. cit.

4. Erakunde habitagarrien (ber)eraikuntza ekologikorako gida



Aurreko kapituluetan adierazi den bezala, erakunde habitagarriak sustatzeko beharrezkoa da, besteak beste, haien alderdi ekologikoari erreparatzea. Jarraian, horretarako lagungarri batzuk eskaintzen dira.

Proposamen ireki bat aurkezten da, osagabea segur aski, zeinean erakundeak egin beharreko galdera batzuk jasotzen baitira, haien bidez bere jardueran, identitatean eta erakunde-kulturan elementu ekologikoak txertatuko dituen aldaketa sustatzen hasteko. Hori izango da lehenengo urratsa. Horrekin eta beste aldaketa-prozesu batzuekin batera —hala nola generoari dagokiona—,

erakunde habitagarrien belaunaldi berri baten garapenaren oinarriak jarriko dira, betiere bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegia abiapuntutzat hartzen dutenak. Eredu horiek etengabe berrikusten eta aldatzen ari dira, era horretan bizitza erakundearen xedeen eta oinarri-ideien erdigunean jartzeko baldintzak sortzeko gai izan daitezten.

Horrelako prozesu batek inplikazio eta erronka batzuk dakartza berekin. Lan-proposamenaren ondoren aurkezten dira, bide horri ekin nahi dioten erakundeetan kontuan har daitezten.

4.1. Naturaren funtzionamendu-printzipioetatik abiatuta berrantolatzea

*"La Natura da 4.000 milioi urte inguruan inoiz porrot egin
ez duen enpresa bakarra"*

Frederic Vester

Erakundeak "ekologizatzeko" prozesu bat lantzeko proposamena ideia honetatik abiatzen da: naturaren funtzionamenduan aurki ditzakegu hori egiteko eredu lagungarriak.

Biomimesia (bio, "bizia", eta mimesia, "imitatu") zientzia bat da, natura inspirazio-iturri gisa aztertzen duena erronka edo arazo sozialei irtenbideak bilatzeko¹¹. Kontua da naturak ematen dituen erantzunetan proposamen

batzuk aurkitzea, hura imitatzean oinarrituak edo hartan inspiratuak. Paradigma hori, diseinu tekniko eta industrialaren esparruetan hedatuta, diseinu sozialari edo elkarte-harremanak eraikitzeari ere aplika dakieke. Halaber, zenbait proposamen berritzailek naturatik datozen soluzioak aplikatzen dituzte, haien bidez lankidetzan eta elkarrekikotasunean oinarritutako eredu eta praktika ekonomiko alternatiboen inspirazioa lortzeko.

Biomimesia diseinu sozialerako ikuspegi gisa¹²

"Nola bihur dezakegu gure eguneroko asmatetaren ohiko parte naturari aholkua eskatzeko ekintza?"

Janine Benyus


Biomimesia naturaren jenialtasunaren imitazio kontzientea da. Biziaren jakinduria —denborak frogatua— diseinuaren espaziora ekarri nahi du, giza soluzioak oinarritzeko, eta, horrela, bizi-sortzaile diren baldintzak eratu daitezten.

Faserik praktikoenean, irtenbide jasangarriak bilatzeko modu bat da, biziaren patroiak, errezeta kimikoak eta estrategia ekosistemikoak maileguan hartzea proposatzen duena. Faserik eraldatzaileenean, prozesu naturalekin lotzen gaitu, era horretan gure lekua hartu ahal izan dezagun; hau da, Lurraren prozesu naturalekin bat egin eta haietan integratu ahal izan gaitzen.

Biomimesiak elkarrekin lotuta dauden hiru elementu behar ditu: ethosaren elementua —biziaren aberastasunarekiko errespetua, erantzukizuna eta esker ona adierazten dituen—; gizakiak naturaren gainerakoarekin (bir)lotzeko elementua; eta imitatzearen elementua —haren bidez naturan aurkitutako printzipioak, ereduak, estrategiak eta funtzioak diseinu sozialera ekartzeko—.

11/ Gure inguruan, proposamen hori zabaltzen aitzindaria Jorge Riechmann izan zen, ekologismo sozialaren ikuspegitik, liburu honekin: *Biomimesis. Ensayos sobre imitación de la naturaleza, ecosocialismo y autocontención* (Madril, Catarata, 2006). Urte batzuk geroago, liburu honen bidez osatu zen proposamena: Riechmann, Jorge (2016): *Un buen encaje en los ecosistemas. Segunda edición (revisada) de 'Biomimesis'*, Catarata, Madril.

12/ Hemendik hartua: Biomimicry 3.8 (2016): *Biomimesis. Perspectiva de diseño. Una guía visual* (<https://biomimicry.net>).




Ikuspegi horri jarraituta, naturaren funtzionamenduaren oinarritzko printzipio batzuk identifikatzen dira gida honetan, eta, printzipio horietatik abiatuta, galdera eta jarduerabatzuk aurkezten dira, zeinek alderdiekologikoa erakundearen bizitzan eta kulturen txertatzen lagundu baitezakete.

Elementu horiek ez dira soilik ingurune naturalari edo haren gaineko inpaktuari zuzenean lotutakoak, baizik eta baita erakunde batek egituratzeko eta jokatzeko duen moduarekin berarekin lotutakoak ere. Horren bidez bilatzen da erakundearen funtzionamendua naturak berak egiten duenaren ahalik eta antzekoena izatea, era horretan, ikuspegi horri esker, kondizio batzuk eraiki daitezkeen erakundeek biziaren ziklo naturalen parte batzuk egiteko.

Printzipioa naturaren esparruan labur deskribatu ondoren, proposamen feministekin duen lotura azaltzen da (erakunde habitagarrien alderdiak integratzen eta elkarrekin lotzen dituen eredu bat garatze aldera). Horren ostean, proposamen batzuk aurkezten dira erakundeetako antolamendu-aldaketa posibleak kolektiboki identifikatzeko, bai eta hori egiten lagundu dezaketen baliabide batzuk ere.

Printzipio bakoitzaren analisi sakona egin aurretik, mapa grafiko bat aurkituko duzue hurrengo orrialdean, zeinak lagunduko baitigu erakunde-lanaren ekosisteman sortzen diren elkarrekintzen nahiz multzoaren ikuspegia izaten.

Naturaren 10 printzipio oinarritzko




1. Ezinbestekoa den energia ongi erabili

10. Etorkizuneko belaunaldiak zaindu

2. Ziklo itxietan jardun

9. Ingurunea hobetu



3. Landareak bezala hazi: sustraiturik eta behetik gora


4. Maximizatu beharrean, optimizatu

5. Aniztasuna onartu eta metatu



6. Harreman sinbiotikoak eratu eta lankidetzaz saritu

7. Bizitzarako lagunkoiak diren materialak erabili




8. Mugikortasuna murriztu



1. Ezinbestekoa den energia ongi erabili

Naturak duen energia-iturririk handiena eguzkiak sortzen du, zeinaren argiari eta beroari esker baita posible bizia planetan. Eguzkiak egunaren eta gauaren nahiz urtaroen bidez erregulatzen ditu biziaren ziklo naturalak, eta, beraz, garrantzitsua da ziklo horietara egokitzea. Era berean, ezinbestekoa da orekari eustea, klima-aldaketa atzeraezinik gerta ez dadin.

Energia, eguzkian ez ezik, leku guztietan dago: izaki bizidunetan, elikaduran, urean edo haizean. Izaki bizidunak egokitu egiten dira, eta energia-iturri horietaz baliatzen dira klima ezberdinetan bizitzeko, leku batetik bestera mugitzeko, haizeak mugituta planeatzeko, etab. Kontua da energia hori modu efizientean baliatzea, beharrezkoa dena bakarrik erabiliz.



begirada feminista

Feminismoak arreta berezia jartzen du bizitzarako baldintza materialei eustea ahalbidetzen duten prozesuetan (energia, adibidez). Gainera, baldintza horiek ahalbidetzen dituzten ondasunak eta baliabideak modu ekitatiboan eta jasangarrian eskuratzea defendatzen du, eta pertsona guztientzako —inolako diskriminaziorik gabe— ongizate-inguruneak sustatzen ditu.

Ordutegiak, espazioak, ardurak edo energiaren erabilera efizientearekin lotutako beste edozein prozesu planifikatzeko jardura orotan, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak prebenitzen eta ezabatzen ditu.



GALDERAK ETA ARIKETAK

Argi naturala

- Posible al da lan-ordutegia ahalik eta gehiena egokitzea argi naturalaren zikloari? Urtaroetara egokitu daitekeen ordutegi-proposamen bat egin
- Nola bateratu ordutegia argi naturalera egokitzea eta bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak?
- Argi naturala aprobetxatzeko baldintza egokiak al dituzte laneko lekuek? Argi naturala aprobetxatzeko ahalik eta lekurik egokituena diseinatu (leihoak, altzarien eta espazioen kokapena, etab.).
- Klima-aldaketak eragindako arriskuak eta ondorioak identifikatu — erakundearen lanean eragina izan dezaketenak—, eta haiek arintzeko edo errealitate horretara egokitzeko neurriak hartu.

Energia-efizientzia

- Energia-efizientziako plan bat eratu, kontsumoa murrizteko eta optimizatzeko neurriak jasotzen dituen (kontuan hartuta pertsonen portaera, ekipamenduen analisia, lekuaren eraikuntza-baldintzak, argi- eta girotze-instalazioen egokitzapena, etab.).
- Erakundeko pertsona guztientzako gida erraz bat diseinatu eta energia-efizientziako planaren jarraipenaz arduratuko den pertsona bat edo batzuk izendatu.
- Ba al dago lekuak, ibilgailuak, ekipamendu teknikoak eta abar beste erakunde eta pertsona batzuekin partekatzerik, energia-kontsumoak murrizteko eta optimizatzeko?

Energia berriztagarriak eta kooperatibak

- Ba al dago erakundearen autokontsumorako energia ekoizterik? Aztertu ea erakundea dagoen lekuan eguzki-energiako instalazioak jartzeko aukerarik badagoen.
- Energia norekin dago kontratatua? Energia berriztagarriak sortzeko, merkaturatzeko eta kontsumitzeko ekonomia sozial eta solidarioko irabazi-asmorik gabeko kooperatiben alde egin.

BALIABIDEAK



- Klima-aldaketari aurre egiteko tresnak eta baliabideak (IHOBE)
<https://www.ihobe.eus/klima-aldaketa>
- Denbora sarea, denboraren erabilera berriak (Bizkaia)
<https://denbora.eus>
- Usos del tiempo (denboraren erabilerak) (Bartzelonako Udala)
<https://bit.ly/TiemposBCN>
- Tiempo para la vida: una reflexión contextualizada en la ciudad sostenible (bizitzarako denbora: hiri jasangarriaren testuinguruan kokatutako hausnarketa) (Garúa S. Coop.)
<https://bit.ly/TiempoGarua>

- NUST, Red de empresas para un nuevo tiempo del trabajo (lan-denboraren erabilera berri baterako enpresa-sarea) (Bartzelona)
<https://bit.ly/NUSTBCN>
- Buenas prácticas para el ahorro de energía en la empresa (enpresan energia aurrezteko jardunbide egokiak) (OptimaGrid)
<https://bit.ly/OptimaGrid>
- Goiener, energia berriztagarrien sorkuntza- eta kontsumo-kooperatiba
<https://www.goiener.com>
- Unión Renovables (cooperativas de personas consumidoras y usuarias de energías renovables) (energia berriztagarrien kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatibak)
<https://www.unionrenovables.coop>

2. Ziklo itxietan jardun

Sistema ekologiko itxiak era honetako ekosistemak dira: sistemaz kanpoko beste ezein ingurunerekin inolako materia-trukerik ez dutenak. Lurra da adibiderik onena; izan ere, irauteko behar dituen elementu eta harreman guztiak ditu bere barnean. Osagaiek, modu orekatuan eragiteari esker, bizitzari eusten diote.

Haren printzipioak aplikatzean, hobeto ulertzen da gure ekosistemak nola funtzionatzen duen eta nola harmoniza daitezkeen haren barruko harremanak. Erakusten digu ekintza orok ondorioak dituela gainerako ingurunean.

Eta hau ondorioztatzen da: baliabideak modu jasangarrian eta efizientean maneiatu beharra, hondakinen kudeaketa jasangarria egin beharra eta haiek aprobetxatu beharra, mantenugaien erabileran eta maximizazioan oinarritutako elikadura-sistema erresilienteak garatu beharra, airea biziberritzearen beharra, etab.



begirada feminista

Feminismoaren arabera, pertsona guztientzako bizitza duin bat sostengatzeko printzipio nagusia da ekitatean eta elkarrekikotasunean oinarritutako harremanak eta interakzioak garatzea.

Ugalketa- eta zaintza-lanen balioa agerian jartzen du —tradizionalki emakumeen esku utzi izan dira, eta ikusezinak izan dira ekoizpen-arloaren aurrean—, eta haiek aitortzea eta gizonen eta emakumeen artean ekitatiboki banatzea bultzatzen du.

Bizitzako eremu guztietan (publikoa, pribatua, lanekoa, soziala, etab.) harremanetan gertatzen diren desberdinkeriak ezabatzen lagunduko duten balioak eta praktikak sustatzen ditu.





GALDERAK ETA ARIKETAK

Autokudeaketa eta jasangarritasuna

- Zer autogestio-maila du erakundeak politikari, ekonomiari eta lanaren antolaketari dagokienez? Zer neurri har daitezke autogestio handiagoa sustatzeko?
- Erakundearen jasangarritasun-maila aztertu, "balantze hirukoitzaren" ikuspegitik: ekonomiko-finantzarioa, soziala (lan-karga, biziaren sostengua, ingurunearekiko harremanak...) eta ekologikoa (ingurumen-inpaktuak eta kudeaketa jasangarria). Esparru bakoitzean hobetzeko arloak, helburuak eta neurriak identifikatu.
- Erakundeko espazio fisikoak naturalizatzeko eta jasangarritasun-irizpideekin diseinatzeko neurriak identifikatu eta sustatu.

Erakunde barruko harremanak

- Nola daude lotuta prozesuak, jarduera-arloak eta lantaldeak? Ba al dago orekarik autokudeaketaren eta arloen, taldeen eta pertsonen arteko elkarlanaren artean? Zer ekintza egin daitezke harreman horietan desberdinkeriak eta desorekak ezabatzeko (generokoari, lan-kargari, ardurei eta abarri dagozkienak)?
- Erakundeko ekoizpen- eta ugalketa-edo zaintza-lanen arteko oreka, garapena eta arduren banaketa analizatu. Zaintza-lanak ikusgarri jartzeko eta aitortzeko neurriak identifikatu, bai eta haiek ekitatiboki banatzekoak ere.
- Nolakoak dira erakundea osatzen duten pertsonen arteko harremanak? Ba al dago mekanismorik harreman pertsonaletan eta lan-harremanetan sor daitezkeen gatazkak elkarlanean konpontzeko?

Ekonomia zirkularra eta merkatu jasangarriak

- Erakundean ba al dago neurririk hauek sustatzeko: birziklatzea, materialak berreskuratzea eta berrerabiltzea, bitartekoak eta baliabideak partekatzea eta hondakinak modu jasangarrian kudeatzea? Arlo horretako hobekuntza-neurriak identifikatu.
- Erakundearen erosketa-politika eta hornitzaileak hautatzeko politika analizatu. Horrelakorik ez badago, erosketa arduratsuko gizarte- eta ingurumen-irizpideak sartu.
- Erakundeko kideen artean kontsumo kontziente, kritiko eta eraldatzailerako proposamenak sustatu.
- Zirkuitu ekonomiko eta balio-kate alternatiboak sustatzeko neurriak garatu, eta, horrela, merkatu sozialaren garapena bultzatu.
- Lankidetzak-akordioak garatzeko eta jakintzak, materialak, baliabideak eta bitartekoak erakundeen artean trukatzeko sareak eraikitze behar diren ekintzak identifikatu.

BALIABIDEAK



- Autokudeaketa eta Ekonomia Solidarioa (Jordi García Jané)
<https://bit.ly/AutokudeaketaES>
- Herramienta de mejora del Triple Balance (balantze hirukoitzaren hobekuntza-tresna) (SANNAS)
<https://bit.ly/TripleBalance>
- Ekonomia zirkularra (IHOBÉ)
<https://www.ihobe.eus/ekonomia-zirkularra>

- Erosteke ingurumen-irizpideak (IHOBÉ)
<https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>
- Merkatu Soziala (REAS Euskadi)
<https://merkatusoziala.eus>
- Mercado Social (REAS Sareen sarea)
<https://mercadosocial.net>
- Ecología industrial y circuitos económicos (ekologia industrial eta zirkuitu ekonomikoak) (Kalundborg)
<https://bit.ly/KalundborgIndustria>

3. Landareak bezala hazi: sustraiturik eta behetik gora

Landareen hostoak behetik gora hazten dira, argia harrapatu beharra baitute fotosintesiaren bidez garatzeko. Haien hazkundera bi faktoreekin konbinatzen da: ingurumenaren baldintzetara egokitzeko malgutasuna eta zutik irauteko gaitasuna.

Baina landareak beherantz ere hazten dira, sustraian bidez; izan ere, mantenugaiak behar dituzte, bai eta hazteko baldintza nahikoak ere. Sustrai horiek, askotan, landarea zoruan asentatzen duten bilbatura bat dira.




begirada feminista



Feminismoak baztertu egiten du genero-diskriminazioan, eredu maskulino eta heteronormatiboen nagusitasunean eta emakumeen eta identitate disidentearen eta ez-normatiboen mendekotasunean oinarritutako balioak eta praktikak inposatzea, eta horren aurka borrokatzen da.

Giza eskalako eta komunitatean eta lurraldean sustraitutako garapen-prozesuak deskribatzeko erabiltzen diren analogietako bat zera da: behetik bultzatutako edo behetik gorako garapena. Goitik bultzatutako politiken kontrako aldera, autokudeaketa eta garapen endogenoa sustatzen dute halako prozesuek.



GALDERAK ETA ARIKETAK

Oinarriak eta sustraiak

- Zein dira eta nola elikatzen dira erakundearen sustraiak (identitatea eta balioak)?
- Nola dago sustraituta erakundea bizi den eta/edo jarduten den erkidegoan eta lurraldean? Nola hobetu hori?

Hazkundera eta funtzionamendua

- Nola planteatzen da erakundearen hazkundera oinarri sozialari, pertsonalari, finantza-jasangarritasunari eta abarri dagokienez?
- Ba al dago prestakuntza eta eztabaida egiteko gune egokirik, erakundearen identitatea eta xedea sakondu eta eguneratzeko?
- Erakundean erabakiak hartzeko prozesuak aztertu. Erabakiak botere-egitura bertikalek (agerikoak zein ezkutukoak) ezartzen al dituzte? Pertsona guztiek hartzen al dute parte erabakietan, inolako diskriminaziorik gabe eta baldintza beretan?



BALIABIDEAK

- La dimensión de las entidades de ESS en tiempos de crisis ecosocial (ESSko erakundeen neurria krisi ekosozialeko garaietan) (Jordi García Jané)

<https://bit.ly/crecimientoESS>

- Ciclos de vida de las Organizaciones Sociales (erakunde sozialen bizitza-zikloak) (Sosteniblepedia)

<https://bit.ly/CiclosOrg>

NATURAREN FUNTZIONAMENDU-PRINTZPIOETATIK ABIATUTA BERRANTOLATZEA

4. Maximizatu beharreen, optimizatu

Ekosistemek, baliabide naturalen erabilera maximizatu beharreen, optimizatu egiten dute. Optimizazioaren abiapuntuko printzipioa da multzo batean eskuragarri dauden elementu guztien artean hoberena eta egokiena hautatzea. Egoerak eskatzen duena bakarrik erabiltzen da (beharrezkoa eta nahikoa dena); ez gehiago, ez gutxiago.

Naturan, printzipio hori beharrezkoa da ingurune beti aldakor batera hobeto egokitzeko eta prozesu eta espazio bakoitza efizientziaz erabiltzeko. Edozein zailtasunen aurrean, irtenbiderik onena bilatzen da.



begirada feminista

Feminismoak errefusatu egiten ditu ugalketa- eta zaintza-lanen egitekoa ikusezin bilakatzen duten logika produktibistak; halaber, etekinak maximizatzeko logikak errefusatzen ditu, ez baitute kontuan hartzen desberdinkeriak sortzeko eta mantentzeko orduan duten eragina, ez eta bizitzaren jasagarritasunari egiten dioten mehatxua ere.



GALDERAK ETA ARIKETAK

- Erakundearen jardueran energiaren, baliabideen, materialen eta lekuen erabilera optimizatzeko neurriak identifikatu.
- Lana antolatzeko prozesuak deskribatu, testuingurura eta koiunturara egokitzearen ikuspegitik, bai eta aukeren optimizaziotik ere.
- Erakundearen jardueran logika produktibistek, epe laburrekoek nahiz etekinak maximizatzekoek zer leku betetzen duten analizatu. Haiek gairatzeko neurriak identifikatu.
- Erakundearen esperientziak sistematizatzeko plan bat sortu, haietatik ikasteko eta etorkizuneko jardunean erabiltzeko.
- Sareko lanaren aukerak identifikatu, oztopoak gairatzeko eta prozesuak optimizatzeko.



BALIABIDEAK

- Recuperar la mirada del largo plazo (epe luzearako begirada berreskuratu) (Roman Krznaric)
<https://bit.ly/KrznaricCharla>
<https://bit.ly/KrznaricGraficos>
- Gure ekintzetatik ikastea: esperientziak sistematizatzea
<https://bit.ly/Sistematizatu>
- Sistematizazioaren abentura. Nola ikasi gure praktiketarik praktika horietatik abiatuta (ALBOAN et al., 2006)
<https://bit.ly/SistematizacionALBOAN>

NATURAREN FUNTZIONAMENDU-PRINTZPIOETATIK ABIATUTA BERRANTOLATZEA

5. Aniztasuna onartu eta metatu

Naturaren ezaugarri nagusia haren aniztasun izugarria da, ekosistemetan, espezieetan eta genetikan. Sistema natural horiek zenbat eta askotarikoagoak izan, orduan eta hobeto egiten diete aurre sortzen diren mehatxuei. Horri esker, segurtasuna eskaintzen duen eta izaki guztien biziraupena eta ongizatea bermatzen duen bizitzasare bat eraikitzen dute.

Landare eta animalia guztien arteko harreman-orekak bermatzen du ura garbi mantenduko dela, airea garbituko dela, klima erregulatuko dela eta mantenugaiak birziklatu eta elikagaiak sortuko direla. Biodibertsitatearen orekak haustean, areagotu egiten dira biziaren segurtasunerako eta jasagarritasunerako mehatxuak.



begirada feminista

Feminismoak pertsonen izateko eta identitatea ulertzeko moduen aniztasuna aldarrikatzen du, beren bizitzako esparru guztietan. Baina onartzen du, era berean, desberdinkeriek eta emakumeen zapalkuntzak konnotazio desberdinak hartzen dituztela etnia, klase, politika, erlijio, gaitasun funtzional, sexu-orientazio eta abarren arabera.

Diferentzia horiez jabetzeari eta haien arteko loturari interseksionalitatea deitzen zaio. Interseksionalitatearen arabera, subjektu bat arau batetik (gizon zuri, burges, heterosexual...) zenbat eta gehiago desbideratu, orduan eta diskriminazio gehiago jasateko arriskuan egongo da.



GALDERAK ETA ARIKETAK

Inklusioa eta irisgarritasuna

- Zer neurri ezarri behar dira erakundean, edo zer neurri baditu jadanik, diskriminazio hauei aurre egiteko: emakumeena gizonekiko, LGTBI+ pertsonen kontrakoa edo profil etnikoaren eta adinaren arabera? Ikuspegi horretatik berrikusi kontratazio-prozedurak, arduren banaketa, erabakiak hartzea, lanaren antolaketa, komunikazio publikoa, etab.
- Erakundean, bere lan-eremuetan eta jarduerak garatzen dituen guneeetan, ba al dago irisgarritasun unibertsaleko politikarik eta prozedurarik (guneen ulergarritasun- eta erabilgarritasun-baldintzak, zerbitzuak, garraio bideak, prozesuak, produktuak eta tresnak, bai eta pertsona guztiek horiek guztiak era seguru eta erosoan eta ahalik eta modurik autonomo eta naturalenean erabili eta gozatu ahal izateko mekanismoak ere)?

Aniztasuna eta erakundea

- Nola sustatzen da pentsamendu-aniztasuna erakundean?
- Posible al da erakundearen ekoizpen-jarduerak dibertsifikatzea, mendekotasunak murriztea eta hiperespezializazioetatik ihes egitea?
- Nola lagundu lan-harremanetan eta harreman pertsonaletan konpetentziaren orde osagarritasuna nagusitu dadin?
- Zer jarduera egiten dira erakundearen xedean, jardueran eta komunikazio publikoan ikuspegi inklusibo eta askotarikoa sustatzeko?



BALIABIDEAK

- Guía para la gestión de la diversidad en entornos profesionales (Lan-inguruneetan aniztasuna kudeatzeko gida) (GESDI)

<https://bit.ly/GestDiver>

- Gestión de la diversidad LGTBI en la empresa (LGTBI aniztasunaren kudeaketa enpresan) (Barcelona Activa)

<https://bit.ly/LGTBIenEmpresa>

- Accesibilidad universal (irisgarritasun unibertsal)

<https://bit.ly/AcceUniv>

NATURAREN FUNTZIONAMENDU-PRINTZIOIOTATIK ABIATUTA BERRANTOLATZEA

6. Harreman sinbiotikoak eratu eta lankidetzaz saritu

Naturan, espezieen arteko harreman sinbiotikoak eratzen dira, parte-hartzaile guztientzako onura sortzen dutenak. Horrela, espezieak, batzuetan, lotura harrigarriki estuak eratu eta elkarren onurarako aritzen dira lanean; ondorioz, lankidetzaz hori saritu egiten da, eta, are gehiago, norberaren biziraupena ahalbideratzen du.

Analogiaz, giza harremanetan eta harreman sozialetan sinbiosia hauekin identifikatzen da: kolektibitatearekin, guztien onarekin, lankidetzarekin, mutualismoarekin eta elkartasunarekin.



begirada feminista

Feminismoaren ekarpen nagusietako bat da aitortzea gorputzen bizitza dela gizartearen oinarria. Hain zuzen, oinarri hori da gizarte solidario bat, xedetzat guztien ona duena, lankidetzaren bidez bultzatzeko abiapuntu egituratzailea. Horretarako, feminismoak sustatzen dituen harremanak ekitatean, elkarrekikotasunean eta bidezko birbanaketan oinarrituta daude.



GALDERAK ETA ARIKETAK

Erakunde barruan

- Sustatzen al da erakundearen lankidetzaz-harremanak ezartzea pertsonen, arloen eta lantaldeen, egituren eta abarren artean? Nola bultzatu?
- Aitortzen al dira publikoki eta saritzen pertsona guztiek egiten dituzten ekarpenak? Ekarpene eta lan guztiak berdinduz baloratzen al dira?
- Lankidetzaz sustatzeko teknologiak eta tresnak aplikatu daitezkeen aztertu.
- Desparekotasunak edo pertsona zein talde jakin batzuek erakundearen duten boterea areagotu ditzaketen harreman sinbiotiko negatiboak identifikatu.

Beste erakunde batzuekin

- Erakundeak garatzen al ditu lankidetzaz-akordioak beste erakunde batzuekin? Nola baloratzen dira?
- Hartzen al du parte erakundeak lankidetzaz eta partekatutako estrategiak garatzea sustatzen duten sareetan?
- Hartzen al du parte erakundeak *coworking*-espazioetan eta jakintzak, baliabideak eta materialak trukatzeko sareetan?



BALIABIDEAK

- Lankidetzaz ekonomia solidarioan
<https://bit.ly/CooperacionES>
- Colaboración efectiva a cualquier escala. Una guía práctica para organizaciones ágiles y resilientes (Lankidetzaz eraginkorra edozein eskalatan. Erakunde arin eta erresilienteentzako gida praktikoa bat) (Sociocracia 3.0)
<https://bit.ly/GuiaSociocracia>
- Trabajo colaborativo (lankidetzaz)
<https://bit.ly/TrabCola>

7. Bizitzarako lagunkoiak diren materialak erabili

Naturak bere funtzionamendurako erabiltzen eta berreskuratzen ditu sortzen dituen materialak. Naturan ez da ezer alferrik galtzen. Izan ere, hondakinak aprobetxatu egiten dira, mantenugai eta ongarri natural gisa, eta, horri esker, leheneratu egiten da natura.

Naturarentzat arraroak diren elementu eta materialak agertzen direnean, oreka hautsi egiten da; izan ere, elementu eta material horiek hautsi egiten dute naturaren garapenaren ziklo zirkularra.



begirada feminista

Feminismoarentzat, bizitza zaintzeak berekin dakar ondasun komunak eta naturalak zaintzea, bai eta haiek merkantilizatzearen aurka borrokatzea eta haiek kontserbatzeko kaltegarriak diren teknologiak eta materialak erabiltzeari aurrea hartzea ere.



GALDERAK ETA ARIKETAK

- Materialen eta horniduren erosketa arduratsuko irizpideak identifikatu, ziurtagiri eta etiketa ekologikoak kontuan hartuta.
- Erakundeak garatzen dituen produktu eta zerbitzuetan, ekodiseinuko proposamenak diseinatu.
- Materialak eta baliabideak birziklatzeko, berreskuratzeko eta berrerabiltzeko neurri eraginkorrak identifikatu eta sustatu.
- Komunikazioaren teknologien erabilerak ingurumenean eta gizartean duen eragina aztertu. Gizarte- eta ingurumen-erabilera arduratsuak sustatu.
- Software librean eta lankidetza-inguruneetan oinarritutako teknologiak erabiltzea planteatu.
- Gizarte-ingurune ahalik eta natural eta osasuntsuenak garatzeko proposamenak landu.



BALIABIDEAK

•Ecolabel Index

<https://www.ecolabelindex.com>

•Produktu eta zerbitzuen ingurumen-aztarna (IHOBE)

<https://bit.ly/ProduktuAztarna>

•¿Qué son los materiales ecológicos? (Zer dira material ekologikoak?)

<https://bit.ly/MaterialEcologico>

•¿Qué es el Software Libre? (Zer da software librea?)

<https://bit.ly/SwLibre>

NATURAREN FUNTZIONAMENDU-PRINTZIOETATIK ABIATUTA BERRANTOLATZEA

8. Mugikortasuna murriztu

Mugimendua gure planetako espezie guzti-guztien ezaugarri bat da. Pentsa dezagun animalien ingurune naturaleko mugimenduan; hegaztien urtaroko migrazio-prozesuetan; arrainen arrautzen eta larben mugimendu pasiboan, baita ur-lasterrei aurre egin aurretik ere; edo, hazienean, substratura iritsi eta ernaldutik aurretik.

Hala eta guztiz ere, gizakiek mugitzeko gaitasuna biziagotu nahi izan dute, horren ondorioak kontuan hartu gabe, era hauetan: ziklo naturalak hausten dituzten energia kutsatzaileak eta garraio-teknologiak erabiliz, eta ingurumenerako kaltegarriak diren bide-azpiegitura handiak eraikiz.



begirada feminista

Feminismoak bizitza zaintzearekin eta haren jasangarritasunarekin bateragarriak diren prozesuak garatzearen alde egiten du.

Zehazki, hirigintza feministak hurbileko mugikortasuna sustatzen du, bai eta erreprodukzio sozialari lotuen dauden hurbileko ibilbideei arreta ematea ere (osasun-zentroak, eskola, parkea, merkataritza...).



GALDERAK ETA ARIKETAK

- Karbono-aztarnaren kalkulagailu bat erabili eta isuriak murrizteko plan baterako neurriak proposatu, mugikortasun jasangarria eta energia-kontsumoaren murrizketa barne hartzen dituztenak.
- Mugikortasun jasangarria sustatzeko neurriak bultzatu, garraio publikoari eta ibilgailuen erabilera partekatuari lehentasuna eman.
- Erosteko eta hornitzaileak hautatzeko politiketan hurbileko kontsumoko eta merkaturatze-zirkuitu laburreko irizpideak sartu, eta, horri esker, tokiko ekoizpena eta kontsumoa sustatu.
- Komunikazio-teknologiaren zentzuzko erabilera, mugikortasunaren murrizketa eta harreman pertsonalak orekatuko dituzten neurriak identifikatu.



BALIABIDEAK

- Huella de carbono (karbono-aztarna)

<https://www.huelladecarbono.info>

- Guía para el cálculo de la huella de carbono y para la elaboración de un plan de mejora de una organización (karbono-aztarna kalkulatzeko eta erakunde bat hobetzeko plan bat egiteko gida)

<https://bit.ly/GuiaHC>

- Planes de movilidad sostenible en empresas (mugikortasun jasangarriko planak enpresetan)

<https://bit.ly/PlanesMoSos>

NATURAREN FUNTZIONAMENDU-PRINTZIOIOTATIK ABIATUTA BERRANTOLATZEA

9. Ingurunea hobetu

Naturak berak ezartzen ditu ekosistemak babesteko eta lehengoratzeko estrategiak; horrela, erresilientziarako, leheneratzeko eta hobetzeko gaitasunari eusten diote.

Naturan oinarritutako soluzioen aplikazio ugari daude, ingurunea hobetzea eta haren orekak berreskuratzea helburu dutenak; besteak beste, arlo hauetan: akuiferoak berreskuratzea, hondamendi naturalak aurreikustea eta arintzea edo klima-aldaketa.

Era berean, sar ditzakegu naturaren funtzionamenduaren ezaugarriak (lankidetzak, egokitzea, leheneratzea...), horrela esparru ekonomiko, sozial eta politikoan ingurunea hobetzeko.



begirada feminista

Komunitate eta lurralde ekitatiboagoak, sozialagoak eta ingurumenaren aldetik jasangarriagoak eraikitzeke lanean ari diren beste gizarte-mugimendu batzuekin ari da lankidetzan feminismoa.



GALDERAK ETA ARIKETAK

- Lurraldearen desmerkantilizazioa, justizia ekosoziala eta bizitzaren jasangarritasuna sustatzen duten sare eta ekimenetan erakundeak duen parte-hartzea aztertu.
- Erakundeak bere jarduera kokatzen eta/edo garatzen den erkidegoan eta lurraldean duen gizarte- eta ingurumen-eragina aztertu, eta ingurunea hobetzeko ekintzak identifikatu.
- Erakundeko teknologiei, materialei, guneei eta jarduerari aplikatutako ekodiseinua naturalizatzeko eta erabiltzeko proposamenak identifikatu.
- Erakundearen gizarte- eta ingurumen-inpaktuaren neurri globala ikertu, eta hura arintzeko neurriak identifikatu (erabiltzen diren produktuen eta materialen hornidura-katea, inbertsioak eta finantza-tresnak, ingurumen-inpaktuen ondorio globalak, etab.).



BALIABIDEAK

- Konpromisoa ekonomia solidarioaren ingurunearekin

<https://bit.ly/EntornoES>

- Horizontes Ecosociales. Capacidad de resiliencia local y justicia global (Jomuga ekosozialak. Tokiko erresilientziarako gaitasuna eta justizia globala)

<https://bit.ly/HorizontesEcosociales>

- ¿Cómo medir el retorno social de la inversión? (Nola neurtu inbertsioaren itzuzkin soziala?)(SROI)

<https://bit.ly/GuiaSROI>


- ¿Cómo compensar emisiones? (Nola konpentsatu isurpenak?)

<https://bit.ly/CompensarEmisiones>

NATURAREN FUNTZIONAMENDU-PRINTZIOETATIK ABIATUTA BERRANTOLATZEA

10. Etorkizuneko belaunaldiak zaindu

Natura, ekosistemak eta biodibertsitatea zaintzea hurrengo belaunaldientzat etorkizun hobe bat bermatzea da. Natura higatzeak eta hondatzeak, aldiz, arriskuan jartzen du etorkizuneko bizitza.



begirada feminista

Bizitzaren jasagarritasuna da feminismoak proposatzen duen paradigma bizitzako bidegabekeriak, desberdinkeriak eta mehatxuak errotik eraldatzeko. Egungo bizitza zaintzeko eta etorkizunean erreproduzitu ahal izateko baldintzak ezartzeko proposamen bat da.



GALDERAK ETA ARIKETAK

- Erakundearen ekintzak etorkizunean fruituak emango dituzten hazitzat hartzeak dituen inplikazioak identifikatu.
- Erakundearen erabakiak hartzerakoan, epe luzerako pentsaera integratu, era horretan etorkizuneko belaunaldienganako sentikortasunari era estrategikoan erantzuteko.
- Jarduera kooperatiboak gizateriarentzat babestu beharreko ondasuntzat aitortu dira instituzionalki. Nola susta ditzakegu, eta, horrela, etorkizunerako ondarea ziurtatu?
- Ondarea eta baliabideak zaintzeko eta mantentzeko neurriak garatu, ziurtatzeko etorkizunean erakundearen helburuak eta xedea mantenduko direla.
- Zer mekanismo ditu erakundeak gazteengana hurbiltzeko eta berritzea sustatzeko?
- Nola presta daiteke erakundea haren egituretako eta oinarri sozialetako langileek etorkizunean ordezkokoak izatea sustatzeko?
- Nola laguntzen die erakundeak sartzen diren berriei? Langile eta/edo boluntario berriei harrera egiteko eskuliburua diseinatu.



BALIABIDEAK

- El cooperativismo como bien cultural inmaterial de la humanidad (kooperatibismoa, gizateriaren kultur-aondasun immateriala) (UNESCO)

<https://bit.ly/CoopUNESCO>


- Memoria del movimiento cooperativo (mugimendu kooperatiboaren memoria) (ACI)

<https://bit.ly/HistoriaACI>

4.2. Eraikuntza ekologikoaren eta biomimetikoaren inplikazioak eta erronkak

Gorago esan da garrantzitsua dela kontuan hartzea denbora, parte-hartzea, zaintza eta sormen handia eskatzen dutela erakunde habitagarriak eraikitze prozesuek, dimentsio feministan zein ekologikoan eta

biomimetikoan. Segidan, prozesu horiek diseinatzeko, planifikatzeko eta garatzeko orduan erakundeek kontuan izan behar dituzten inplikazio eta erronka batzuk deskribatuko ditugu labur-labur.



Errealitatea onartu


Antolaketa-aldaketa bati ekitea beharrezkoa dela onartzeak adierazten du aitortzen dela badaudela tokiko ingurunean eta ingurune globalean —baita koiunturan ere— zenbait arazo garrantzitsu eragin erabakigarria dutenak erakundearen kulturen eta jardueran. Esate baterako, adierazten du aitortzen dela gure planetak eskatzen duen trantsizio ekosoziala erakundearen portaeraren mende dagoela —nahiz eta eragin txikia duela irudit—, edo aitortzen dela erakundearen barne-funtzionamendua ez dela behar bezain egokia norberaren eta besteen bizitzaren ekitate, ongizate eta jasangarritasunerako guneak sustatzeko.

Aldaketarekin konprometitu

Antolaketa-aldaketak egiteko era bakarra da konpromisoaren beharraz jabetzea eta guneak, denbora eta baliabideak eskaintzea. Gure erakundeak eraldatzeko, ezinbestekoa da haien egitura eta pertsona guztiak konprometitzea, prozesurako ardurak izendatzea eta aldaketa garatzeko behar diren baliabideak eskaintzea.

Kolektiboki eraiki

Aldaketak erakundearen txertatu eta iraunkorrak izan daitezen, beharrezkoa da dagokien pertsona guztiek prozesuan parte hartzea. Gainera, taldean eta lankidetzan eraikitzea da erakundeak habitagarri gisa definitzen dituzten ezaugarri nagusietako bat; halaber, baita ekosistema gisa zeharkatzen dituzten iritzien, aukeren eta bizimoduaren aniztasuna onartzea eta sustatzea ere.



Ziurgabetasuna kudeatu


Gaur egun ez da erraza asmatzea zer eboluzio izango duten etorkizunean gure gizarteak eta planetak. Halaber, ez da erraza erakundeek eta gure bizitzek epe ertain eta luzera izango dituzten erronkei aurrea hartzea ere (barrukoei nahiz kanpokoei). Espektatibak hauskorak direnez, orainari aurre egiteko dugun antsietateak arrisku psikosozial handiak sortzen ditu pertsonentzat eta aldaketarekin konprometitu nahi duten erakundeentzat. Antolaketa aldatzeko prozesuak egitea ahalbidetuko duten baldintzak bermatzeko, oso garrantzitsua da sormenez, era positiboan eta kolektiboki identifikatzea eta kudeatzea ziurgabetasun-egoera horren arriskuak.

Erresistentziak identifikatu

Gizakiek, naturako beste izaki bizidun batzuekin gertatzen ez den bezala, beti ez dute behar besteko malgutasunik testuinguru aldakorretara egokitzeko; hala, ez dute erraz onartzen eraldaketarik, baldin eta beren ibilbide eta errutinak, beren balioak eta eskuratutako praktikak nahastea badakar horrek. Antolaketa-aldaketako prozesuak egiten direnean, nabarmen azaltzen dira aipatutako erresistentziak. Zenbait kausari lotuta egon litezke erresistentzia horiek: botere-harremanak, konpondu gabeko gatazkak, oinarriko kultura eta balioak, eta abar. Haiek minimizatzeko eta gainditzeko, identifikatu egin beharko dira, eta hori izango da antolaketa aldatzeko prozesuetan beti aurre egin beharreko erronketako bat.

Ondoezak onartu eta konponbidea eman

Ziurgabetasunak eta aipatutako erresistentziek hainbat ondoez-mota sortzen dituzte pertsonengan, eta erakundeen bizitza baldintzatzen dute. Bidegabekeria ekosozialak —gertatu ohi diren era eta gune guztietan— irauteak ere eragiten die eraldaketa sozialak bilatzen dituzten proiektu pertsonalei eta kolektiboari. Beharrezkoa da ondoez horiek identifikatzea eta jakinaraztea, onartzeaz gain jarraipena egiteko, minimizatzeko eta, ahal bada, konponbidea emateko.



Kontraesanak sormenez kudeatu


Antolaketa aldatzeko prozesuek agerian uzten dituzte erakunde batean dauden kontraesanak: printzipioen eta praktiken artekoak, irriken eta eguneroko errealitatearen artekoak. Kontraesan horiek agerian uzten dute zaila dela koherenteak izatea halakoa ez den sistema sozial, politiko eta ekonomiko batean; era berean, agerian uzten dute gure bizitzaren eta proiektuen kalteberatasuna. Inkoherentzia hori eta hauskortasun hori onartzean datza, halaber, aldatzeko abagunea, bai eta bi begiradak —utopikoa eta norberaren mugak onartzen dituen— konbinatzeko aukera ere.

Zainketak landu

Ez da erraza ziurgabetasunari, erresistentziei, ondoezi eta kontraesanei aurre egitea prozesu horietan kontu handiz ibili gabe. Beharrezkoa da zaintzak aldaketa-prozesuaren parte izatea, era horretan erakundeen jardunaren erdigunean txerta daitezen eta hori ardura kolektibotik eta banaketa ekitatibotik egin dadin. Zaintza horiek, arrazionaltasunaren eremuan ez ezik, pertsonen emozionaltasunaren eremuan ere kokatu behar dira.

Norberari eta erakundeari dagozkion alderdiak orekatu

Ez datoz beti bat pertsonen eta erakundeen beharrak; era berean, ez dute beti bat egiten proiektu indibidual eta kolektiboek. Oreka hauei erreparatu behar diote antolaketa aldatzeko prozesuek eta erakunde habitagarrien ereduek: erakundearen proiektuaren eta konpromiso indibidualaren artekoa, lan-bizitzaren eta bizitza pertsonalaren artekoa, proiektuen eta haien emaitzen alderdi kolektiboaren eta pertsona bakoitzaren ekarpenari egin beharreko aitortpenaren artekoa.



Begirada luzea entrenatu


Sarritan, bizi garen garaia erabiarazten ari gara, bizi garen garaia erabiarazten ari gara, bizi garen garaia erabiarazten ari gara. Abiadurak, presak, produktibismoak eta erakunde epe laburreko ikuspegiak eragotzi egiten digute eguneroko bizitzatik harago doan begirada bat izatea. Antolaketa-aldaketako prozesuek, hain zuzen ere, espazio eta denborasosegatuaren beharra dute —eta haiek gerta daitezkeen bilatzen dute— ikusgai dagoenetik harago begiratzeko. Aldi berean, epe luzerako begirada lantzearen beharra dute, erakunde habitagarriak eraikitzeak. Erakunde habitagarrien abiapuntua da eraldatze-prozesuek denbora luzeak behar dituztela: geldiak, ondo hausnartuak eta behar bezala onartuak, bai barnetik, bai kanpotik.

Aurrerapenak ospatu

labilbidea luzea izan arren, eta zailtasunak zailtasun, prozesu horietan aurrerapausoak emango dira, txikiak edo handiak, zeinak erakundearen izateko eta egiteko estilo berria taxutuz joango baitira. Funtsezkoa da aurrerapen horiek aitortzea eta ospatzea, eta, haietatik abiatuta, urrats berriak eraikitzea, eta ez soilik zailtasun eta atzerapausoetatik abiatuta —horrelakoak ere izango baitira—.

Esperientziak sistematizatu

Sistematizazio-prozesuei esker, memoria kolektiboa berreraikitzen da, eta, gainera, ikasi egiten da. Hala, ikasitakoa erabili daiteke lehenagoko praktikak kopiatzeko edo praktika berriei ekiteko. Antolaketa-aldaketako prozesuetan, zer egiten den jabetzeaz gain, garrantzitsua da hori nola egiten den jabetzea. Izan ere, horri esker identifikatu ahal izango ditugu arrakastara edo porrotera eramango duten kausak eta baldintzak.



Prozesuak politizatu

Egia esan, antolaketa aldatzeko prozesuak hartu ditzakegu gure gizarteentzat eta planetarentzat lortu nahi dugun gizarte- eta ingurumen-berrantolaketaaren probalekutzat. Adierazi den moduan, ezinezkoa da mundu berri bat eraikitzea praktika tradizioaletan errotutako erakunde bidez; izan ere, praktika horiek desberdinkeriei eusten diete, eta ez dute bizitzaren jasangarritasuna lehentasuntzat hartzen. Ikuspuntu horretatik, alde batera utzita prozesu horiek erakundearen beraren eta haren ingurune hurbilenaren ongizaterako dituzten onurak, beharrezkoa da aipagai dugun erakunde-eredu berriaren izaera politikoa onartzea, zeinak gizarte-, kultura- eta ekonomia-arloak eraldatzeko ahalmena ematen baitio.

Hala, erakunde habitagarriagoak eraikitzeko abiapuntu bat izan daiteke, antolaketa-aldaketako prozesu feministak diren era

berean, erronka horiei aurre egitea eta kolektiboki lantzea gida honek naturaren oinarritzko printzipioak kopiatzeko egiten dituen proposamenak. Erakunde habitagarriago horietan, pertsonen ekitatean eta ongizatean (ondo bizitzea) oinarritutako bizi-proiektuak garatu ahal izango dira, ingurumenari eta gizarteari dagokienez osasungarriak eta jasangarriak diren elkar- eta lan-inguruneetan.

Erakunde horiek nahikotasuna lantzen dute, gutxiagorekin hobeto bizi ahal izateko. Ondasun material eta kezka gutxiagorekin, arrisku psikosozial eta ingurumen-inpaktu gutxiagorekin, desperekotasun eta gatazka gutxiagorekin... Alaitasun eta lankidetzaren handiagorekin, eta bizitza gehiago sostengatuz.

Bideak partekatu

Erakunde sozial eta ekonomiko askok, indar handiagoz edo txikiagoz, antolaketa-aldaketako prozesuei ekiten diete honako hauekin lotutako eremuetan: ingurumen-jasangarritasuna, emakumeen eta gizonen arteko ekitatea eta eredu horizontal eta partizipatiboen garapena. Erakunde horiek antzeko kezka eta zailtasunak topatzen dituzte, eta, beraz, komeni da prozesu horiek eta haiek garatzeko erabilitako tresnak partekatzea. Bestalde, prozesu horiei ekiten dieten erakundearen eredu eta esperientzia oso garrantzitsuak dira beste batzuk horrelako prozesuei ekitera bultzatzeko. Alde horretatik, erakunde-sareek zeregin erabakigarria izan dezakete laguntzeko, esperientziak eta jardunbide egokiak sistematizatzeko, eta prozesu horiek sustatzeko tresna erabilgarriak garatzeko.

Nahikotasuna erakunde habitagarrietan

“Jasangarritasuna hiru bidetatik bilatu daiteke: efizientzia, koherentzia eta nahikotasuna. Labur-labur, hiru bide horiek era honetan ezaugarritu daitezke: efizientziaren helburua da materiari eta energiari probetxu handiagoa ateratzea, hau da, baliabide naturalen produktibitate handiagoa lortzea. Koherentzia naturarekin bateragarriak diren teknologietara bideratua dago; hau da, ekosistemak suntsitu gabe haietaz baliatuko diren etara. Nahikotasunaren xedea da ondasunen eskari txikiagoa eginez (...) baliabideen kontsumoa murriztea. Bide horietako batek ere ez gintuzke jomugara eramango beste biak gabe” (Manfred Linz)¹³.

Linen hitzek erakusten digute zer printzipiori jarraitu beharko liekeen ingurumenaren jasangarritasunarekin konprometitutako erakunde sozial eta ekonomiko orok. Ziurrenik, efizientzia da erakunde eta enpresen jardunbide ekologikoetan gehien hedatu den kontzeptua. Koherentzia handituz doa, baina urrun gaude printzipio gidaria ekosistemak kaltetu gabe aprobetxatzea izatetik. Nahikotasuna da erronkarik handiena, edo, agian, baldintza beharrezkoa eta premiazkoa, baliabide naturalen ustiapen- eta agortze-egoera leheneratzeko; izan ere, planetaren beraren muga biofisikoak gaingitu ditu egoera horrek.

Jakina, erakunde habitagarrien eredutik abiatuta (ber)egituratzen saiatzen diren erakundeek, nahikotasun-maila handiagoak lortzeko, helburu zehatzak planteatu beharko lituzkete. Argi dago ingurumenarekin duten harremanean hori egin beharko luketela, baina printzipio hori bera aplikatu dakieke, halaber, haien balioei eta kulturari, haien xedeari eta jarduerari, haien lanen antolaketari eta plangintzari.

Nahikotasunak lotura du nork bere buruari mugak jartzearekin eta austeritatearekin, neurritsu izatearekin eta xumetasunarekin, erritmo motelekin eta prozesuak sinplifikatzearekin, bai eta zainketak, harremanen kalitatea eta guztion ongia gehiago baloratzearekin ere. Azken batean, zerikusi handia du produktibismoaren eta utilitarismoaren nagusitasuna baztertzearekin eta bizitza eta bizitzaren gizarte- eta ingurumen-jasangarritasuna erakunde baten erdigunean jartzearekin.

13/ Linz, Manfred (2007): “Sobre suficiencia y buena vida”, in Linz, Manfred, Riechmann, Jorge eta Joaquim Sempere: *Vivir (bien) con menos. Sobre suficiencia y sostenibilidad*, Icaria, Bartzelona.

